



Kaixo lagunak

Atsegin handiz jakinarazi nahi dizuegu heldu den azaroaren 9, 10 eta 11n Iruñean Estatu mailako XXX. LGTBI+ TOPAKETAK izanen direla. Iruñeko Udalarekin batera antolatzen ari gara eta Nafarroako Gobernuaren sostengua du, bai eta LGTBI zerbitzuen eta LGTBI arloko hainbat pertsonarena ere.

Hausnarketan laguntzen digun topagunea izatea nahi dugu, baina era berean, debateetarako, ideiak elkartrukatzeko, proposamenak sortzeko eta kolektiboen arteko harremanak sendotzeko aukera paregabea. Beraz, xede honi heltzeko parte-hartzea ahalbidetzen duten guneak sortuko ditugu.

Aurtengo topaketetan bi dira proposatzen ditugun lan-ildoak; biak erlazionaturik eta biek elkar elikatzen dutenak:

Alde batetik, funtsezko bi helburu bete nahi dituen solasaldi sorta izanen dugu ostiral arratsaldean eta larunbat goizean. Lehenengoa gure kolektiboetarako garrantzitsuak direnak eta aurreko topaketetan intereseko gaitzat jo izan direnak: LGTBI + politika publikoak, interseksionalitatearen kontzeptua, feminismoak eta LGTBI+ eta indarkeria intra-generoa/sexua. Bigarrena Nafarroan egiten ari garen politika eta LGTBI+ zerbitzuen praktikak beste lurraldeetara zabaltzeko gune estrategikoak sortzea.

Beste aldetik, larunbat arratsaldean kolektiboei zuzenduta eta kolektiboek gidaturik hainbat lantegi edo tailer izanen dira solasaldietan atera diren gakoetan sakontzeko, hausnartzeko eta parte-hartzeko.

Lantegiak presta dezazuen nahi genuke, praktika onak lantzearen edo LGTBI+ ekimenak lantzeko. Proposamenak jaso ahala, egitaraua osatzen joanen gara. Beraz, tailerren proposamenen esperoan gaude. Ahal bada, topaketen lan ildo nagusiekin erlazionaturik daudenak. Web orriaren bitartean egiten ahal duzue urriaren 20a baino lehen. Idatzi zein den edukia, gutxi gorabeherako denbora, eta egoki ikusten duzuen bestelako informazioa ere.

www.encuentroslgtbpamplona.com. gunean informazio osoa agertuko da: egitaraua, izen-ematea, ostatua ...

Zuen zain gaude! Laster arte!